

Aita Santua izan nahi zuen beratarra

Paperezko egunkaritik gehienadut gustuko, eskelen errepasso azkarra barne. Duela gutxi, Josu Goiarena ikusi nuen bi egunkaritan, eta haren oroimenezko idazkia bietan. Lander Santamariak *Diario de Noticias*-en sinatuak honako izenburua zuen: "Josu Goia, uno de Bera que quería ser Papa". (Josu Goia, aita santua izan nahi zuen beratarra).

Kazetari elizondarrak zioenez, Goiari txikitan piztu zitzaion aita santua izateko *bokazioa*. Argaya apezpiku beratarra herrian ezagutzean, hura hainbesterako ere ez zela pentsatu eta gorago jotzea erabaki zuen, sotanadun batek lor dezakeen mailarik gorena amets. Horretarako, jakina, Iruñeko seminarioan hasi beharra zegoen. Apezgai aritu zen garaian, teologia eta filosofiaz gain, pianoa, txistua eta gitarra jotzen ere ikasi zuen.

Erromako elizako burua izateko grina ahantzirik, hogeita bi urtetan Berara bueltatzea erabaki zuen. Geroztik, sorterrian herrigintza kontzeptuarekin laburbil daitezkeen hamaika saltsatan aritu zen: koruko zuzendari, txistulari, dantzari, elizako organista, musika eskolaren sortzaile, ikastola eta gau eskolaren bultzatzaile,



Fermin Erbiti
KAZETARIA

Erromako elizako burua izateko grina ahantzirik, hogeita bi urtetan Berara bueltatzea erabaki zuen. Geroztik, sorterrian herrigintza kontzeptuarekin laburbil daitezkeen hamaika saltsatan aritu zen

le, Olentzero eta inauterien susper-tzaile, herriko suhiltzaile boluntario, alkate, zinegotzi, parlamentari... Eskultura lanen bat ere utzi du herriko karrketan, eta Guardia Zibilarekin izaniko liskarren testigantza idatzia liburu batean.

Santamariaren idazkia irakurtzean, gure herrietan auzolanean nabarmendu diren beste gizon-emakume batzuk gogoratu nituen. Duela hiru urte, herriz-herri ibili nintzen, Nafarroako ikastolen 50. urteurreneko liburua idazteko elkarrizketak eginez. Egia esan, pagotxa izan zen Ikastolen Elkartearen enkargua. Izan ere, horri esker han eta hemen hamaika istorio interesgarri eta beste hainbeste gizon-emakume konprometitu ezagutu nituen: euskaltzale sutsuak, auzolanean zailduak, ameslariak, haize zakarrak nekez kikiltzen dituen horietakoak. Ikastolak martxan jarri ondoren, horietako askok lehen udal demokratikoetan parte hartu zuten, beratarrek egin zuen bezala.

Gisa horretako herritarren meritua aldarrikatu eta hortik guztiok irabazi duguna azpimarratu behar dela iruditzen zait. Herrian bizitzeaz gain, herria bizi duten gizon-emakume horiek asko ematen digutelako; *saltsero* bezain eskuzabalak izanik, era askotako lanak egiten dituztelako, musu truk gehienetan. Horien artean bazen bat, ahalegin guztiak herriari eskaintzeko aita santua izateari ere uko egin ziona: berriki hildako Josu Goia beratarra. ■



Alberdi

EUSKAL ARTISAUTZA

OPARI BEREZIETARAKO
PERTSONALIZATUAK
PREZIO AUKERA DESBERDINAK

ESKAERAK

azoka.argia.eus

☎ 943 371 545